# CONTENIDO SENSIBLE

Este ciclo contiene historias
y vidas que pueden herir
tu sensibilidad.

Por eso es necesario.

---

## VER AHORA

el mundo y los derechos humanos

XIX muestra de cine

golem baiona

11 - 15 noviembre 2024

DL NA 2020-2024

DISEÑO: CARMEN ZUDAIRE

Fundación IPES Fundazioa

golem

Fundación FELIPE RINALDI

Mugarik Gabe Nafarroa

SUBVENCIONA / DIRUZ LAGUNDU DUTE

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

# SESIONES EDUCATIVAS MATINALES

***Para alumnado de Enseñanza Media***

Las sesiones consisten en la **proyección de películas** para introducir la temática y **generar un debate con el alumnado** a través de la exposición de las personas invitadas para la sesión.

**Todas las sesiones serán de 9:15h a 11:45h**

## LUNES 11 NOVIEMBRE

### TE ESTOY AMANDO LOCAMENTE

***Alejandro Marin (España, 2023, 107')***

Sevilla, 1977. En un momento en el que la homosexualidad es delito, **Reme**, una madre tradicional movida por el amor hacia su hijo, un adolecente aspirante a artista, se involucrará en el movimiento LGTBI andaluz, gestado paradójicamente en el seno de la Iglesia.

**INTERVIENE EN EL COLOQUIO:**

**EHGAM NAFARROA**. Movimiento plural, autónomo y revolucionario por la liberación sexual de Euskal Herria. Creado en 1978, su lucha está centrada en la libertad sexo-genérica más allá de una identidad concreta. En Navarra participa en **Kattalingorri** y la **Plataforma 28J** y realiza diversas campañas y jornadas como MARIPENSANDO o XOKA.

## MARTES 12 NOVIEMBRE

### CLOSE

***Lukas Dhont (Bélgica, 2022, 104')***

**Léo** y **Rémi** son dos adolescentes que comparten una amistad muy fuerte y pasan la mayor parte de su tiempo libre juntos. Al comenzar la secundaria, **Léo** y **Rémi** conocen a otros alumnos. **Léo** se siente perturbado cuando sus compañeros empiezan a cuestionar la naturaleza de su relación con **Rémi**, insinuando que podrían ser pareja. Aunque sigue pasando tiempo con **Rémi**, **Léo** comienza a distanciarse de él.

**INTERVIENE EN EL COLOQUIO:**

**JUAN ARTEAGA**. Periodista, profesor y gestor cultural especializado en cine y audiovisual. Ha cubierto diferentes festivales de cine, ha realizado charlas, cursos y ciclos sobre diversos aspectos de la cultura audiovisual contemporánea.

## MIÉRCOLES 13 NOVIEMBRE

### RAFIKI

***Wanuri Kahiu (Kenia, 2018, 83')***

En Nairobi, las estudiantes **Kena** y **Ziki** llevan vidas muy diferentes, pero las dos hacen lo posible por alcanzar sus sueños. Sus caminos se cruzan en medio de una campaña electoral que enfrenta a sus respectivos padres. Las chicas se gustan, pero la sociedad keniana es muy conservadora, y tendrán que elegir entre el amor y la seguridad.

**INTERVIENE EN EL COLOQUIO:**

**ALICIA PANO**. Activista transfeminista en colectivos como **Zikutak** o **Lumatza**. Licenciada en Humanidades y Experta en género con una larga experiencia en formación en temas de género y LGTBIQ.




## LUNES 11 NOVIEMBRE



**SESIÓN 19:30h / 6,00€**

**AGRESIONES SEXUALES A MENORES**

# LAS CHICAS DE LA ESTACIÓN

***Juana Macías (España, 117'. 2024)***

### SINOPSIS

**Jara**, **Álex** y **Miranda** son tres chicas que han crecido en un centro de menores sin saber qué es el amor sin condiciones.
Es el cumpleaños de **Jara** y las tres quieren celebrarlo en el concierto de su trap queen preferida. Ellas no tienen dinero ni muchas formas de conseguirlo, pero por el barrio está siempre una chica algo mayor, ex interna de su mismo centro, que les ofrece citas con adultos en los baños de la estación.
Poco a poco y creyendo tener el control, se van viendo atrapadas en una red de prostitución de menores. La violación múltiple a una de ellas acabará por darle la vuelta a todo.

### INVITADAS

**JUANA MACÍAS,** directora de la película y **MARÍA STEELMAN** (Sevilla, 2005). Su primer papel como actriz ha sido como coprotagonista en LAS CHICAS DE LA ESTACIÓN. Actualmente estudia la carrera de Ingeniería Electrónica y asiste a clases de interpretación. Una de sus mayores pasiones es el baile.

**JUANA MACÍAS** (Madrid, 1971) directora de cine y guionista se licenció en 1994 en Comunicación Audiovisual por la Universidad Complutense de Madrid. En 1999 obtuvo el Premio Goya al Mejor cortometraje de Ficción por SIETE CARTAS POR SEMANA. En 2010 fue nominada al Premio Goya al Mejor Director Novel por su película PLANES PARA MAÑANA película que ganó la Biznaga de Plata a la Mejor Dirección en el Festival de Málaga.
Sus siguientes largometrajes son EMBARAZADOS (2016), BAJO EL MISMO TECHO (2019), FUIMOS CANCIONES (2021), EL FAVOR (2023) y LAS CHICAS DE LA ESTACIÓN (2024). Actualmente está en preproducción de su séptimo largometraje: LOOKING FOR MICHAEL (2025).

### PREMIOS

Premio del Jurado Joven en el SCHLINGEL International Film Festival, Alemania (2024).




**MARTES 12 NOVIEMBRE**



**SESIÓN 19:30h / 6,00€**

**DERECHO A LA VIVIENDA**

# DÓNDE VAMOS A VIVIR / MUJERES CONTRA EL DESAHUCIO

***Georgina Cisquella (España, 61´. 2024)***

**INVITADA**

**GEORGINA CISQUELLA**, directora de la película.

## SINOPSIS

Es una película documental que retrata el problema de la vivienda en España. Rodada en Madrid durante tres años, se centra en el papel que tienen las mujeres para hacer frente a los miles de desahucios que se producen cada año. A través de sus historias sigue la lucha de los movimientos sociales que desde hace más de una década reivindican el derecho a una vivienda digna y denuncian las graves consecuencias de la crisis hipotecaria, el aumento abusivo de los alquileres, y el control del mercado por parte de los fondos buitre.

**GEORGINA CISQUELLA** Periodista, guionista y directora de cine documental, de larga trayectoria en RTVE. Ha sido corresponsal diplomática, presentadora de programas informativos como Informe del día, Informe Semanal y especialista en el área de cine de los TELEDIARIOS. Entre 2004 y 2008 es directora y creadora de nuevos formatos para la 2 de TVE, como el programa cultural Miradas 2 y Cámara abierta 2.0.

En su actividad como guionista y directora, destacan entre otros trabajos EL EFECTO IGUAZÚ, Goya al Mejor Documental (2002) y como directora OXÍGENO PARA VIVIR (2011), COCA-COLA EN LUCHA/ CUANDO DAVID SE ENFRENTA A GOLIAT (2016). Entre sus trabajos anteriores figuran SUBCOMANDANTE MARCOS, VIAJE AL SUEÑO ZAPATISTA, ME ESTOY QUITANDO, EN EL MUNDO A CADA RATO y HOTEL EXPLOTACIÓN: LAS KELLYS.




## MIÉRCOLES 13 NOVIEMBRE



**SESIÓN 19:30h / 6,00€**

**EXPLOTACIÓN LABORAL, CAPITALISMO**

# ON FALLING

***Laura Carreira (Reino Unido - Portugal, 104'. 2024)***

### SINOPSIS

**Aurora** es una mujer portuguesa que trabaja en un gran almacén de Escocia. Atrapada entre los muros de su centro de trabajo y la soledad de su piso compartido, trata de resistir al aislamiento, la alienación y la charla trivial que comienzan a amenazar su consciencia de sí misma. En un entorno dominado por una economía basada en algoritmos y diseñada para mantenernos separados, ON FALLING explora la lucha silenciosa y vital por encontrar sentido y conectar.

**LAURA CARREIRA** (Porto, Portugal, 1994) Directora y guionista portuguesa. Su primer cortometraje, RED HILL, ganó el Premio New Visions en el Festival Internacional de Cine de Edimburgo. Su cortometraje THE SHIFT ganó el Premio Nuevo Talento en IndieLisboa. En 2022, **Laura** fue nombrada una de las Rising Stars Scotland por la revista Screen International. Su primer largometraje, ON FALLING, que cuenta con **Ken Loach** como productor ejecutivo, se estrenó en el Festival Internacional de Cine de Toronto y su estreno europeo fue en el Festival Internacional de Cine de San Sebastián.

### PREMIOS

Concha de Plata a la Mejor Directora en el Festival Internacional de Cine de San Sebastián (2024).

### INVITADA

**BEGOÑA PÉREZ ERANSUS**

Profesora Titular del Departamento de Sociología y Trabajo Social de la Universidad Pública de Navarra. Imparte docencia en el Grado de Trabajo Social en la asignatura Política Social y en el Máster Universitario de Intervención Social de la UPNA. Sus líneas de investigación se centran en el ámbito de la exclusión social y el análisis de las políticas sociales públicas y ha participado en diversas investigaciones de ámbito nacional y europeo.
Vicerrectora de Proyección Universitaria, Cultura y Divulgación en la UPNA.




**JUEVES 14 NOVIEMBRE**



**SESIÓN 19:30h / 6,00€**

**OCUPACIÓN ISRAELÍ, RESISTENCIA PALESTINA**

# NO OTHER LAND

***Basel Adra, Hamdan Ballal, Yuval Abraham, Rachel Szor (Palestina-Noruega, 95'. 2024)***

**INVITADA**

**LIDÓN SORIANO**

Licenciada y Doctora en Ciencias de la Educación Física y el Deporte, también tiene los grados de Fisioterapia, Magisterio y Enfermería, carrera en la que, además, es profesora de Emergencias Sanitarias en la escuela sanitaria de Navarra. Lleva más de 20 años compaginando su tarea docente, asistencial e investigadora con su actividad solidaria, colaborando con una ONG de salud en Palestina y ha coordinado 17 delegaciones tanto en los territorios palestinos ocupados como en Israel, teniendo un amplísimo conocimiento del conflicto tanto en el plano académico como vivencial.

**SINOPSIS**

**Basel Adra**, joven activista palestino de Masafer Yatta, en Cisjordania, lucha desde su infancia contra la expulsión masiva de su comunidad por las autoridades israelíes. Documenta la erradicación a cámara lenta de los pueblos de su región natal, donde los soldados desplegados por el gobierno israelí derriban poco a poco las casas y expulsan a sus habitantes. En un momento dado, conoce a **Yuval**, un periodista israelí, que le apoya en sus esfuerzos. Surge así una improbable alianza. Pero la relación entre ambos se tensa por la enorme desigualdad que los separa: **Basel** vive bajo ocupación militar mientras que **Yuval** vive libremente y sin restricciones.

**BASEL ADRA** activista y periodista palestino. **HAMDAN BALLAL** activista y defensor de los derechos humanos de Palestina y miembro del proyecto Humans of Masafer Yatta. **YUVAL ABRAHAM** periodista de investigación, director de cine y traductor árabe-hebreo israelí. **RACHEL SZOR** directora de fotografía, editora y directora israelí que actualmente vive en Jerusalén.

**PREMIOS**

Premio del Público y Premio al Mejor Documental del Festival Internacional de Berlín (2024), Premio del Público en el Festival Internacional de Cine Documental de Copenhague CPH:Dox (2024), Premio del Público en el Festival Internacional de Cine Documental ZagrebDox (2024) y Premio del Público en Festival International de cine Visions du Réel.




**VIERNES 15 NOVIEMBRE**



**SESIÓN 17:30h**

**MEMORIA HISTÓRICA**

# 16060 EGUN / DÍAS

***Iñaki Alforja, Iban Toledo (España, 27'. 2024)***

**SESIÓN GRATUÍTA**

## SINOPSIS

**Eneko Etxeberria** es hermano del pamplonés **Jose Miguel Etxeberria "Naparra"** que fue hecho desaparecer en 1980 en la localidad de Ziburu. El grupo paramilitar Batallón Vasco Español revindicó su secuestro, asesinato y desaparición. Desde entonces la familia lleva reclamando saber qué pasó y donde está su cuerpo. Sin cumplir aún 17 años, la desaparición forzosa de su hermano **José Miguel** ha venido marcando la vida de **Eneko Etxeberria Álvarez**.

## INVITADOS

**IÑAKI ALFORJA SAGONE** director del documental, **ENEKO ETXEBERRIA** hermano de **Jose Miguel Etxeberria "Naparra"**.

**IÑAKI ALFORJA SAGONE** (Pamplona, 1967). Experimentado documentalista con más de 35 años de experiencia ha realizado documentales, campañas publicitarias, spots y videoclips en cuatro continentes. Además de una manera especial de narrar con imágenes, **Iñaki** ha trabajado en todas las facetas del proceso de producción: Idea, desarrollo, preproducción, rodaje, edición, postproducción y exportación para redes o pantalla grande. Entre sus trabajos como director de fotografía destacan WHY, MATRIOSKAS o EL DROGAS, Y como proyectos propios destacan HISTORIA DE UN VOLANTE, MOTXILA 21, EL VUELO DE LAS LIBÉLULAS y OSKARA.

**IBAN TOLEDO** lleva más de dos décadas trabajando en el mundo audiovisual. Primero como realizador de informativos en televisión y posteriormente como cámara y director de fotografía en documentales. Entre los años 2009-2015 formó parte de una empresa de comunicación donde realizó videos corporativos, institucionales, publicitarios y documentales en los que desempeñó labores de director de fotografía, cámara y editor. En 2015 puso en marcha su propio proyecto, ON PRODUKZIOAK. Estos últimos años, también ha participado en diferentes documentales: NI ARGA, NI ULTZAMA, ZIORDIKO ILARGIA, PASAIAKO BADIA, ARALAR MUNDUA LEKU DEN LURRA…

A ambos directores, en este proyecto les mueve, además de la solidaridad con la familia **Etxeberria**, su compromiso con una mirada a la memoria histórica basada en los derechos humanos y en los principios de verdad, justicia y reparación.



## VIERNES 15 NOVIEMBRE



**SESIÓN 19:30h / 6,00€**

**VERDAD, JUSTICIA Y REPARACIÓN**

# INDARKERIAREN OI(H)ARTZUNAK

## LET IT KNOW (QUE SE SEPA)

***Amaia Merino y Ander Iriarte (España, 59’. 2024)***

### SINOPSIS

40 años después de que ETA secuestrara a su familia y el Estado asesinara bajo torturas a su padre, **Tamara Muruetagoiena** emprende una incansable búsqueda de verdad y justicia. **Tamara**, cara a cara, cuenta su tragedia familiar: el impuesto revolucionario, el secuestro por un comando de ETA durante 17 días, la posterior desestructuración familiar, la persecución de la maquinaria estatal, la presión política, el juicio, la detención de su padre y de su madre, las torturas, el asesinato... Pero también su camino hacia la verdad, el reconocimiento y el uso del diálogo como herramienta principal para la resolución de conflictos.

**AMAIA MERINO** (San Sebastián, 1970) codirigió con **Aitor Merino** el largometraje documental ASIER ETA BIOK (ASIER Y YO) (2013), Premio Irizar en el Festival Internacional de Cine de San Sebastián, a donde regresó en 2020 con NON DAGO MIKEL? (¿DÓNDE ESTÁ MIKEL?), codirigida con **Miguel Ángel Llamas**, que recibió una mención especial de ese mismo galardón.

**ANDER IRIARTE** (Oiartzun, Gipuzkoa. 1986) estudió en la ESCAC, donde participó en la película colectiva LOS INOCENTES (2013) y dirigió el documental ECHEVARRIATIK ETXEBERRIARA (2014). Ha dirigido cortometrajes y los largometrajes, documentales como BIHAR DOK 13 (2018) y KARPETA URDINAK (2022).

### PREMIOS

Premio del Público al Mejor Largometraje en el Festival de Cine y Derechos Humanos de San Sebastián (2024).

### INVITADA

**AMAIA MERINO**, directora del documental.

# EDUKI SENTIKORRA

Ziklo honek zure sentikortasuna mindu dezaketen istorioak eta bizitzak biltzen ditu.

Horregatik da beharrezkoa.

---

## IKUSI ORAIN

XIX zinema erakusketa

**mundua eta giza eskubideak**

2024 azaroa 11 - 15 **golem baiona**


SUBVENCIONA / DIRUZ LAGUNDU DUTE

Fundación IPES Fundazioa · golem · Fundación FELIPE RINALDI · Mugarik Gabe Nafarroa · Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernua

DL NA 2020-2024

DISEINUA: CARMEN ZUDAIRE

# GOIZEKO HEZIKETA SAIOAK

***Erdi Mailako Ikasteak***

Saioetan, **filmak emango dira**, gaiari sarrera emateko eta eztabaida sortzeko ikasleekin, saiorako gonbidatutako pertsonen azalpenaren bidez.

**Saio guztiak 9:15etatik 11:45era izango dira.**

## AZAROAREN 11n ASTELEHENA

### TE ESTOY AMANDO LOCAMENTE

***Alejandro Marin (Espainia, 2023, 107')***

Sevilla, 1977. Homosexualitatea delitua den une batean, **Reme**, artista izan nahi duen seme nerabearenganako maitasunak mugiarazitako emakume tradizional bat, Andaluziako LGTBI mugimenduan inplikatuko da, paradoxikoki Elizaren baitan sortutako mugimendu batean.

**SOLASALDAN ESKU HARTUKO DU:**

**EHGAM Nafarroa**. Mugimendu askotariko, autonomo eta iraultzailea Euskal Herriko sexu-askatasunaren alde. 1978an sortua, bere borrokak sexu-genero askatasunean jartzen du arreta, identitate jakin batetik harago. Nafarroan, **Kattalingorrin** eta **Plataforma 28Jn** parte hartzen du, eta hainbat kanpaina eta jardunaldi egiten ditu, adibidez, MARIPENSANDO eta XOKA.

## AZAROAREN 12an ASTEARTEA

### CLOSE

***Lukas Dhont (Belgika, 2022, 104')***

**Léo** eta **Rémi** bi nerabe dira, oso lagun onak direnak eta beren denbora libre gehiena elkarrekin igarotzen dutenak. Bigarren Hezkuntza hasitakoan, **Léo**k eta **Rémi**k beste ikasle batzuk ezagutuko dituzte. **Léo** nahasita sentituko da, gainerako ikaskideak **Rémi**rekin duen harremanaren izaera zalantzan jartzen hasten direnean, bikotea izan daitezkeela iradokita. **Rémi**rekin denbora igarotzen jarraituko badu ere, **Léo** harengandik urruntzen hasiko da.

**SOLASALDAN ESKU HARTUKO DU:**

**JUAN ARTEAGA.** Kazetaria, irakaslea eta kultura-kudeatzailea, zineman eta ikus-entzunezkoetan espezializatua. Hainbat zinema-jaialdiren berri eman du, eta solasaldiak, ikastaroak eta zikloak egin ditu ikus-entzunezko kultura garaikidearen zenbait alderdiri buruz.

## AZAROAREN 13an ASTEAZKENA

### RAFIKI

***Wanuri Kahiu (Kenya, 2018, 83')***

Nairobin, **Kena** eta **Ziki** ikasleek oso bizimodu desberdinak dituzte, baina biak ahalegintzen dira beren ametsak lortzen. Bien gurasoak aurrez aurre dituen hauteskunde-kanpaina baten erdian gurutzatuko dira beren bideak. Biek elkar gustuko dute, baina Kenyako gizartea oso kontserbadorea da, eta maitasunaren eta segurtasunaren arteko hautua egin beharko dute.

**SOLASALDAN ESKU HARTUKO DU:**

**ALICIA PANO.** Aktibista transfeminista, besteak beste, Zikutak eta Lumatza taldeetan. Lizentziaduna da Humanitateetan eta aditua Generoan, genero eta LGTBIQ gaietako prestakuntzan esperientzia luzekoa.




**AZAROAREN 11n, ASTELEHENA**



**19:30ean / 6,00€**

**SEXU-ERASOAK ADINGABEEI**

# LAS CHICAS DE LA ESTACIÓN

***Juana Macías (Espainia, 117'. 2024)***

## SINOPSIA

**Jara**, **Álex** eta **Miranda** adingabeen zentro batean hazi diren hiru neska dira, baldintzarik gabeko maitasuna zer den jakin gabe.

**Jara**ren urtebetetzea da, eta hirurek beren trap queen gogokoenaren kontzertuan ospatu nahi dute. Ez dute dirurik, ezta hura lortzeko modu askorik ere, baina auzoan beti ibiltzen da zertxobait zaharragoa den beste neska bat, zentro horretan bizi izandakoa eta geltokiko komunetan helduekin hitzorduak edukitzea eskaintzen diena.

Pixkana, eta kontrola dutela sinetsita, adingabeen prostituzio-sare batean harrapatuta geldituko dira. Haietako bati egingo dioten talde-bortxaketak dena hankaz gora jarriko du azkenean.

**JUANA MACÍAS** (Madril, 1971) Zinema-zuzendaria eta gidoilaria, 1994an eskuratu zuen Ikus-entzunezkoen Komunikazioko lizentzia, Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean. 1999an, fikziozko film labur onenaren Goya saria lortu zuen SIETE CAFÉS POR SEMANA lanarengatik. 2010ean, zuzendari berri onenaren Goya sarirako izendatu zuten PLANES PARA MAÑANA filmarengatik. Azken film horrek, Zilarrezko Biznaga saria lortu zuen, zuzendaritza onenarengatik, Málagako Jaialdian.

Ondoren egin dituen film luzeak hauek izan dira: EMBARAZADOS (2016), BAJO EL MISMO TECHO (2019), FUIMOS CANCIONES (2021), EL FAVOR (2023) eta LAS CHICAS DE LA ESTACIÓN (2024). Egun, zazpigarren film luzearen preprodukzioan dago: LOOKING FOR MICHAEL (2025).

## GONBIDATUAK

**JUANA MACÍAS,** filmaren zuzendaria, eta **MARÍA STEELMAN** (Sevilla, 2005). LAS CHICAS DE LA ESTACIÓN filmean protagonistetako bat izatea egin duen aurreneko aktore-lana izan da. Egun, Ingeniaritza Elektronikoko ikasketak egiten ari da, eta antzezpen-eskoletara joaten da. Bere pasioetako bat dantza da.

## SARIAK

Epaimahai Gaztearen Saria SCHLINGEL International Film Festivalen, Alemanian (2024).




**AZAROAREN 12an, ASTEARTEA**



**19:30ean / 6,00€**

**ETXEBIZITZA DUINA IZATEKO ESKUBIDEA**

# DÓNDE VAMOS A VIVIR / MUJERES CONTRA EL DESAHUCIO

***Georgina Cisquella (Espainia, 61'. 2024)***

**GONBIDATUA**

**GEORGINA CISQUELLA**, filmaren zuzendaria.

## SINOPSIA

Espainian etxebizitzarekin dagoen arazoa irudikatzen duen film dokumentala da. Madrilen filmatua hiru urtean, urtero gertatzen diren milaka etxegabetzeei aurre egiteko emakumeek duten eginkizunean jartzen du arreta. Haien historien bidez, duela hamarkada batetik baino gehiagotik etxebizitza duin baterako eskubidea aldarrikatzen duten eta hipoteka-krisiaren ondorio larriak, alokairuen abusuzko emendatzea eta putre-funtsek egiten duten merkatu-kontrola salatzen dituzten gizarte-mugimenduen borrokari jarraipena egiten dio.

**GEORGINA CISQUELLA** Kazetaria, gidoilaria eta zinema dokumentaleko zuzendaria da, RTVEn ibilbide luzekoa. Korrespontsal diplomatikoa izan da, informazio-saioen aurkezlea, besteak beste, Informe del día eta Informe Semanal saioena, eta espezialista zinema-arloan albistegietan. 2004 eta 2008 artean, zuzendaria eta formatu berrien sortzailea izan zen TVE2rako, adibidez, Miradas 2 eta Cámara abierta 2.0 saioetarako.
Egin dituen gidoilari- eta zuzendari-lanetan hauek nabarmendu behar dira: EL EFECTO IGUAZÚ, dokumental onenaren Goya saria jasoa (2002), eta zuzendari gisa, OXÍGENO PARA VIVIR (2011), COCA-COLA EN LUCHA / CUANDO DAVID SE ENFRENTA A GOLIAT (2016). Aurreko lanen artean hauek daude: SUBCOMANDANTE MARCOS, VIAJE AL SUEÑO ZAPATISTA, ME ESTOY QUITANDO, EN EL MUNDO A CADA RATO eta HOTEL EXPLOTACIÓN: LAS KELLYS.




## AZAROAREN 13an, ASTEAZKENA



**19:30ean / 6,00€**

**LAN-ESPLOTAZIOA, KAPITALISMOA**

# ON FALLING

***Laura Carreira (Erresuma Batua - Portugal, 104'. 2024)***

### GONBIDATUA

**BEGOÑA PÉREZ ERANSUS**

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Soziologia eta Gizarte Laneko Saileko irakasle titularra. Irakaskuntza ematen du Gizarte Laneko Graduan, Gizarte Politikako irakasgaian, eta NUPeko Esku-hartze Sozialeko Unibertsitate Masterrean. Bere ikerketa-ildoek gizarte-bazterketaren arloan eta gizarte-politika publikoen analisian jartzen dute arreta, eta Estatuko eta Europako hainbat ikerketatan parte hartu du. Unibertsitate Proiekzio, Kultura eta Dibulgazioko errektoreordea

### SINOPSIA

**Aurora** portugaldarra da, eta Eskoziako biltegi handi batean lan egiten du. Lantokiko hormen eta etxebizitza partekatuko bakardadearen artean harrapatuta, Aurora bakartzeari, alienazioari eta elkarrizketa hutsalei aurre egiten saiatuko da, bere buruaz duen kontzientzia mehatxupean egoten hasiko baita. Algoritmoetan oinarritutako eta bereiz mantentzeko diseinatutako ekonomia nagusi den ingurune batean, ON FALLING lanak zentzua aurkitzeko eta konektatzeko borroka isil eta bizia esploratzen du.

**LAURA CARREIRA** (Porto, Portugal, 1994) Portugaldar zuzendari eta gidoilaria. RED HILL bere lehen film luzeak New Visions saria lortu zuen Edinbugoko Nazioarteko Zinema Jaialdian. THE SHIFT bere film laburrak talentu berriaren saria irabazi zuen IndieLisboan. 2022an, Screen International aldizkariak Rising Stars Scotland izarretako bat izendatu zuen Laura. Bere lehen film luzea, ON FALLING, zuzendari exekutibo **Ken Loach** duena, Torontoko Nazioarteko Zinema Jaialdian estreinatu zen, eta Europako estreinaldia Donostiako Zinemaldian izan zen.

### SARIAK

Zuzendari Onenaren Zilarrezko Maskorra Donostiako Zinemaldian (2024).




**AZAROAREN 14an, OSTEGUNA**



**19:30ean / 6,00€**

**ISRAELDARREN OKUPAZIOA, PALESTINARREN ERRESISTENTZIA**

# NO OTHER LAND

***Basel Adra, Hamdan Ballal, Yuval Abraham, Rachel Szor (Palestina-Norvegia, 95'. 2024)***

## SINOPSIA

**Basel Adra**, Masafer Yattako palestinar gazte aktibista, Zisjordanian, haurtzarotik ari da borrokatzen israeldar agintariek bere komunitatea masiboki kanporatzearen aurka. Bera jaio zeneko eskualdeko herriak kamera geldoan desagerraraztea dokumentatzen du, Israelgo gobernuak hedatutako soldaduek pixkana eraisten baitituzte etxeak eta egozten baitituzte biztanleak. Une batean, **Yuval** ezagutuko du, israeldar kazetaria, bere ahaleginetan babestuko duena. Hala, nekez sinesteko aliantza sortuko da bien artean. Dena den, bien arteko harremana tenkatu egingo da, bereizten dituen berdintasunik ez ikaragarriarengatik: **Basel** militarren okupaziopean bizi da; **Yuval**, aldiz, libre eta murrizketarik gabe.

**BASEL ADRA** palestinar aktibista eta kazetaria da. **HAMDAN BALLAL** aktibista, Palestinaren giza eskubideen defendatzailea eta Humans of Masafer Yatta proiektuko kidea. **YUVAL ABRAHAM** israeldar ikerketa-kazetaria, zinema-zuzendaria eta arabiera-hebreera itzultzailea. **RACHEL SZOR** israeldar argazki-zuzendaria, editorea eta zuzendaria, egun Jerusalemen bizi dena.

## SARIAK

Ikus-entzuleen Saria eta Dokumental Onenaren Saria Berlingo Nazioarteko Jaialdian (2024), Ikus-entzuleen Saria CPH:Dox Kopenhageko Zinema Dokumentalaren Nazioarteko Jaialdian (2024), Ikus-entzuleen Saria ZagrebDox Zinema Dokumentaleko Nazioarteko Jaialdian (2024) eta Ikus-entzuleen Saria Visions du Réel Zinemako Nazioarteko Jaialdian.

## GONBIDATUA

## LIDÓN SORIANO

Lizentziaduna eta doktorea da Hezkuntza Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan, eta Fisioterapiako, Irakasle-ikasketetako eta Erizaintzako graduak ere baditu. Azken horrekin lotuta, gainera, Nafarroako osasun-eskolan Osasun Larrialdietako irakaslea da. 20 urtetik gora daramatza irakasle-lana, laguntza ematekoa eta ikertzekoa elkartasun-jarduerarekin bateratzen, Palestinan osasuneko GKE batekin lankidetzan arituz. 17 delegazio koordinatu ditu lurralde palestinar okupatuetara eta Israelera, eta gatazkaren gaineko ezagutza zabal-zabala du, bai arlo akademikoan, bai eta bizipenen arloan ere.




**AZAROAREN 15ean OSTIRALA**



**17:30ean**

**MEMORIA HISTORIKOA**

# 16060 EGUN / DÍAS

***Iñaki Alforja, Iban Toledo (Espainia, 27'. 2024)***

**DOAKO SAIOA**

## SINOPSIS

**Eneko Etxeberria Jose Miguel Etxeberria "Naparra"** iruindarraren anaia da, 1980an Ziburun desagerrarazi zutenarena. Batallón Vasco Español talde paramilitarrak bahitu, hil eta desagerrarazi zuela aldarrikatu zuen. Geroztik, zer gertatu zen eta gorpua non dagoen jakitea erreklamatzen ari da familia. Artean 17 urte bete gabe zituela, **José Miguel** anaiaren desagerketa behartuak **Eneko Etxeberria Álvarez**en bizitza osoa markatu du.

## GONBIDATUAK

**IÑAKI ALFORJA SAGONE** dokumentalaren zuzendaria eta **ENEKO ETXEBERRIA**, J**ose Miguel Etxeberria "Naparra"**-ren anaia.

**IÑAKI ALFORJA SAGONE** (Iruñea, 1967). 35 urtetik gorako esperientzia duen dokumentalista eskarmentudun honek dokumentalak, publizitate-kanpainak, iragarkiak eta bideoklipak egin ditu lau kontinentetan. Irudiekin kontatzeko modu berezi bat dauka, eta, gainera, Iñakik produkzio-prozesuaren alderdi guztietan lan egin du: ideia, garapena, preprodukzioa, filmaketa, edizioa, postprodukzioa eta esportazioa sareetarako edo pantaila handirako. Argazkilaritzako zuzendari gisa egin dituen lanen artean hauek nabarmendu behar dira: WHY, MATRIOSKAS eta EL DROGAS. Eta bere proiektu moduan, beste hauek: HISTORIA DE UN VOLANTE, MOTXILA 21, EL VUELO DE LAS LIBÉLULAS eta OSKARA.

**IBAN TOLEDO**k bi hamarkada baino gehiago daramatza ikus-entzunezkoen arloan lan egiten. Lehenbizi, errealizadore lanetan telebistako albistegietan, eta gero, kamerari eta argazkilaritzako zuzendari lanetan dokumentaletan. 2009 eta 2015 urteen artean komunikazio-enpresa bateko kidea izan zen, eta bertan bideo korporatiboak, erakundeetarakoak, publizitatekoak eta dokumentalak egin zituen, argazkilaritzako zuzendariaren, kamerariaren eta editorearen lanak eginez. 2015ean, bere proiektua jarri zuen abian: ON PRODUKZIOAK. Azken urte hauetan, gainera, hainbat dokumentaletan parte hartu du: NI ARGA, NI ULTZAMA, ZIORDIKO ILARGIA, PASAIAKO BADIA, ARALAR MUNDUA LEKU DEN LURRA…

**Etxeberria** familiarekiko elkartasunaz gain, bi zuzendariek, proiektu honetan, konpromisoa dute memoria historikoari giza eskubideetan eta egiaren, justiziaren eta erreparazioaren printzipioetan oinarrituta begiratzeko.



AZAROAREN 15ean, OSTIRALA



**19:30ean / 6,00€**

**EGIA, JUSTIZIA ETA ERREPARAZIOA**

# INDARKERIAREN OI(H)ARTZUNAK

## LET IT KNOW (QUE SE SEPA)

***Amaia Merino eta  Ander Iriarte (Espainia, 59'. 2024)***

**GONBIDATUA**

**AMAIA MERINO**, dokumentalaren zuzendaria.

**SINOPSIA**

ETAk familia bahitu eta Estatuak aita torturapean hil eta handik 40 urtera, **Tamara Muruetagoiena**k egiaren eta justiziaren bilaketa nekaezin bati ekingo dio. **Tamara**k, aurrez aurre, familiaren tragedia kontatuko du: iraultza-zerga, ETAko komando baten bahiketa 17 egunean, ondorengo familia-desegituraketa, Estatuaren makineriaren jazarpena, presio politikoa, epaiketa, aita eta ama atxilotzea, torturak, hilketa… Baina, era berean, egiarantz, aitortzarantz eta gatazkak konpontzeko tresna nagusi moduan elkarrizketa erabiltzerantz egindako bidea ere kontatuko du.

**AMAIA MERINO** (Donostia, 1970). **Aitor Merino**rekin batera, ASIER ETA BIOK (2013) film luze dokumentala zuzendu zuen, Irizar Saria jasoa Donostian. Bertara itzuli zen 2020an, NON DAGO MIKEL? aurkezteko, **Miguel Ángel Llama**sekin batera zuzenduta, eta sari horren beraren aipamen berezia eskuratu zuen.

**ANDER IRIARTE** (Oiartzun, Gipuzkoa, 1986). Kataluniako ESCAC eskolan ikasi zuen, eta bertan, LOS INOCENTES (2013) film kolektiboan parte hartu zuen eta ECHEVARRIATIK ETXEBERRIARA (2014) dokumentala zuzendu zuen. Film laburrak eta, besteak beste, BIHAR DOK 13 (2018) eta KARPETA URDINAK (2022) film luze dokumentalak zuzendu ditu.

**SARIAK**

Ikus-entzuleen Saria Film Luze Onenari Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldian (2024).